


Ez nau izutzen negu hurbilak

*Ez nau izutzen negu hurbilak
Uda betezko beroan
Dakidalako iraute duela
Orainak ere geroan
Nolabaitezko kate geldian
Une unezko lerroan
Guztia present gelditu arte
Nor izanaren erroan.*

*Ez nau izutzen egunsentian
Arnas zuridun izotzak
Nun dirudien bizirik gabe
Natura zabal hilotzak
Eguzki joan eder guztien
argia baitu bihotzak
eta begien mila ernegai
iraganaren oroitzak.*

*Ez nau larritzen azken orduan
Arnasa galdu beharrak
Bide xumea hesitu arren
Amildegiazen larrak,
Ardo berriak onduko ditu
Mahastietan aihen zaharrak
Gure oraina arrazoiturik
Beste batzuren biharrak.*

*Ez nau iluntzen baratzatikan
Azken loreak biltzeak
Muga guztien arrazoi bila
Arnas gabe ibiltzeak
Arratsaldeko argi betera
Zentzu denak umiltzeak
Amets betezko loa baitakar
Behin betirako hiltzeak.*



TESTU IRUZKINA

Xabier Lete Bergaretxe (Oiartzun, 1944) plaza gizon osoa dela esan genezake: poeta, kantari antzerkilari,, politikari... Jendearekin konektatu eta komunikatzeko gaitasun handia du; interesgune ugari ageri du, eta horrek ekarri du bere liburuetako gai aniztasuna. Joera batekin lotzekotan, existentzialismoan kokatuko genuke: giza izatearen zergaitiaz galdetzen u, kexu eta samina adieraziz, kezka orokor horrek hainbat adar hartzen ditu gero, abstrakzioaren bitartez poema erlijiosoak egiteko (kristautasun berezia uztartuz), edo konkrezioaren bidez, euskal gizartearekiko ezinegona azaltzeko.

Filosofiaz existentzialista bada ere, literatur estiloz espresionista dela esan liteke, alegia, Lasa inpresionista zen bezala, pintzelkada finez giro bat ematen ziguna, Letek adierazmodu indartsu eta sarritan bortitza erabiltzen du, pasioz eta irrikaz betea.

Leteren lehen liburua "Egunetik egunera orduen gurpillean" (1968) izan zen, bertakoak dira "Besteak ere negar egiten dute" eta "Zelai ertzeko lore gorriak" olerkiak, bata neurri libreakin egina, bestea ostera, Lekuonaren antzera, hitz neurtutik abiatuta librerantz jotzen duena, errimari uko egin gabe halere.

"Urrats desbideratuak" (1981) izan zen gizon polifazetiko honen hirugarren liburua, eta handik hartua dut nik "ez nau izutzen negu hurbilak" olerkia. Bada beste poema ezagun bat, bilduma horren barne: "Aberria, orain". Olerki honen bidez, Letek, EH-arekiko setitzen duen harremana gatazkatsu eta agonikoaren adibide ere bada, harreman kontraesankor hori hobeto ulertzeko interesgarria da jakitea, nola, poema honen kontrapuntu bezala, geroko liburu batean ("Zentzu antzaldatuaren poemategia", 1992), honako bukaera eman zion beste olerki bati: "Nor izango zaio oraindik leial aberri dohakabe honi?"

Orain, bai, berak idatzirik "Ez nau izutzen negu hurbilak" olerkiaren analisiarekin hasiko naiz, Leteren famatuenetako eta hunkigarrienetako poema dela azpimarratu ondoren.

Zalantza minimorik gabe, olerki honen jeneroa lirika dugula adierazi beharra dago, kutsu sakoneko lexikoa erabiltzeaz gain, idazlearen sentimenduz eta emozioz jorratuta baitago. Gai berezi eta iluna den heriotzaren inguruko poema izateak, izpi dramatiko sakonak aireratzea ekartzen du.

Estrofa bakoitzeko amaiera errimaduna izatea, irakurlearen belarriei kantu bat balitz bezala ikusteko aukera eskainiz.

Lexiko ulergarria eta euskara batuan idatzirik agertzeak, Xabier Leteri buruz txintik ez dakien norbait (nik kasu), iragan hurbil batean kokarazten dio, olerki garaikide baten aurrean.

Heriotzaren inguruko olerkia izateak, abstraktu edota ukitu-ikusi ezina den zerbait bihurtzen du. Deskribapen edo bakarriketa baino ez dela zehaztea ere ez da gauza erraza, oso esaldi borobil eta landuak agertzen baitzaizkigu, heriotza beraren deskribapenaren aurrean gauden seinale izanik, (non baliabideetaz lagundurik heriotzaren inguruko bere

Ez nau izutzen negu hurbilak
Xabier Lete

iritzia azalarazten duen) ; edota Xabier Letek egiten duen lehenengo pertsonan idatziriko bakarrizketa.

Funtsean, "ez nau izutzen negu hurbilak" olerkia, Xabierrek heriotzaren inguruan dituen hausnarketaren isla dugu, non, lehen aipaturik <mundutiko desagertzea>ren ideiarekin inguruan biraka dabil behin eta berriz, huraxe, aspektu edo ingurune ezberdinetan ekartzen dituen ondorioak azalduz, hala nola, natura

"ez nau iluntzen baratzetikan
Azken loreak biltzeak"

(ekoizturiko janaria erretiratzea, bizia uztearen seinale da), egunsentietako hoztasuna

"ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak"

(mundua uztearen, eta honek dakartzan fribolitateari beldurrik ez dion seinale da)

Xabierrek etsipenez onartzen du heriotzak denoi eskaintzen digun, gure esku ez dagoen amaiera. Lehenengo pertsona hurbil batean zuzentzen zaigu, hunkigarritasun eta dramatismoz jorraturiko olerki eder honekin, beraz, argi dago funtzio poetikoaz gain, funtzio hunkitzailea dugula, inolako zalantzarik gabe, poema honen jaun eta jabe.

Nahiko subjektiboa da, gai honek esnatzen dituen kritikak anitzak eta zeharo ezberdinak baitira; zahartzen edo mundu hau ustearen kontrako inor baitago. Halere, bera ez dator bat aurretik planteaturiko ideiarekin, neuk ere neure burua zaku berean sartzen dudalarik (heldutasunak beste hainbat gozamen, esperientzia eta sentimendu dakarrela uste dut).

Tonu ilun eta itzali bat etorriko litzaioke tratatzen duen gaiari., halere, oso dramatiko den arren, ez du gaia batere negargarri edo hotza planteatzen, beste etapa baten hasiera baizik. Olerkia lau parrafotan bereizita agertzen zaigu. Parrafo bakoitzak heriotza hurbil sumatzen deneko azkenengo ahokadak zehazten ditu, bakoitza, berba egiten duen esparruaren inguruko metafora eder bati lotuta agertzen delarik, alegia, gaztaroa atzean gelditu (uda dena) eta gainera datorkigun ahultasun eta heriotza aurreikusiz.

Bigarren parrafoan, oster, hil ostean, bizidunen oroimenetan dirauten eta desagertezinak diren oroitzapen bero eta samurren adierazpena da eta heriotza agertu aurretik somarazten den azkenengo arnasaren aurrean indartsu dabilela agertarazi nahi du ere. Hirugarren parrafoan, beldurgarri diren bizitzako une zein lekuen beldur ez dela argitzen du.

Azkenengo eta laugarren estrofan, hil eta hilotz bilakatutakoan amaiezina den ametsetako bidaian barrena dabil.

"ez nau beldurtzen negu hurbilak", errimadun olerkia dugu eta bertsotzat har genezake, zortziko handiaren egitura betetzen baitu. Lau ahapalditan bereizita azaltzen da, bakoitzaren errima ezberdina delarik. Zortziko handia dela denean, estrofa bakoitza 10-8 silabako zortzi lerroz osatuta dagoela adierazi nahi da, eta olerki honetan bereziki, ez da sumatzen lizentziaren beharrik izan duenik. Hasierako ahapaldian -eroan/-erroan dugu errima; bigarrean -otzak; hirugarrenean -arrak; eta azkenengoan -ean da.

Biltzen dituen baliabideen azterketan zentratuz gero, errekurtsio estilistikoz josiriko olerkiaren aurrez-aurre gaudela ohartzen gara berehala. Irakurtzen hasi orduko ahapaldi bakoitzaren hasierako lerroek estruktura bera jarraitzen dutela ikus daiteke, paralelismoaren erabilera zuzena, alegia; <konjuntzioa+ aditza+aditza+izena>

Aldi berean, "ez nau" -ren errepikapenak, anafora baten aurrean gabiltzala zehazten du. Paradoxa dexente darabil baita ere, zenbait izenen kontrastearen bitartez ideia nabarmentzeko, hala nola:

"Ez nau izutzen **negu** hurbilak

Ez nau izutzen negu hurbilak
Xabier Lete

Uda betezko beroan

Dakidalako iraute duela **orainak** ere **geroan**”

Izen baten kualitate bat azpimarratzen duen errekursoaren erabilera ere egiten du, epiteto izenez ezagutzen duguna, esaterako:

“...zuridun izotzak”
“eguzki eder.... argi...”

Errekurtso ugari sumatzen diren arren, metafora da halere errekurtsu estilistikorik nabarmenena eta erabiliena. Hau gai baten inguruan ematen da, eta bere ingurunean den beste batean txertaturik kontatu ere, kasu hau adibide ezinhobea dugu:

**“Ez nau iluntzen baratzetikan
azken loreak biltzeak”**

(ekoizturiko janaria erretiratzea, hazkunde edo bizi prozesua bere amaierara iristear dagoela inguruan berba egiten du). Aurretik jarritako baliabidea jarraituz, huraxe bereziki “metafora sinestesikoa” deritzogun baliabidea betetzen duela esan daiteke, hau da, ukipenezko sentsaziora hurbiltzen zaituela.

Aliterazioaren agerpena ere soma dezakegu, alegia, zenbait hots berdinen errepikapena:

“Ez nau beldurtzen egunsentian...”

(hurrengo ere aliteraziotzat har genezake, nahiz eta errimadun hitzak daramaten kontsonante kakofonikoa izan “rr”, errimaz gain dauden beste hainbat hitzetan agertzen baita):

“ez nau larritzen azken orduan
arnasa galdu beharrak
bide xumea hesitu arren
amildegiaren larrak,
ardo berriak onduko ditu
mahastietan ahien zaharrak
gure oraina aztertutik
beste batzuren biharrak”

Esan genezake, orokorrean, olerki hau parafrasi bat dela; gai baten inguruko komentario hutsa baita, azalpen hornitu batzuekin luzatuta dagoena.

Prosopopeiatzat ere har dezakegu ondorengo esaldia:

“nun dirudien bizirik
gabe natura zabal hilotzak”

Kurioso da, amaieran, bertsoetan agertzen ohi den bezalaxe, amaierako mezuaren agerpena. Azkenengo bi esaldiek, aurretik agerturiko metafora guztien gaia konkretuki zein den argitzen du;

**“amets betezko loa baitakar
behin betirako hiltzeak”**

Onartu beharra daukat, testu iruzkinari amaiera eman aurretik, izugarri gustura hartu dudala lan hau, aztertuko nuen eta momentura arte ezagutzen ez nuen olerki sakon eta sentikor honen berri izan nuenean. Egia esan, ez naiz olerkiak irakurtzearen zale amorratua, agian askotan jarri ez naizelako izan daiteke. Baina, dena den, neure barrenean, irakurtzeko zaletasuna pittin bat esnaraztea eragin du.

Gogora ekarri dizkit galdutako senide bereziak, eta gai orokorra den heriotzaren inguruko hausnarketa sakona egitea ere, ideia nagusi honetara ailegatu naizelarik: bizitza

Ez nau izutzen negu hurbilak
Xabier Lete

trantsiziozko epe edo aldiunea baino ez dugu, eta bertan gauden heinean, inguratzen gaituzten bitxikeria guztiaz, preziatuak zein arruntak izan, topera gozatu baino ez dugula egin behar, ezagutzen ez dugun beste etapa batean, heriotzaren ondorengoan, sakondu aurretik.

Bertatik asko ikasi dudala uste dut, mami dexente baitago izkutatuta berorren barrenean.

Ugariak izan dira olerki honek transmititu dizkidan sentzazioak hala nola, hunkigarritasuna, uleen tentetzea (aztertzen ari den gaiaren inguruko metaforak irakurtzean.)...

Oso balorazio edo kritika onak baino ezin niezazkioke Xabierrek ekoizturiko olerkiari egin.

Ez dut ezer kritikatzetik, edo nik neuk hobetzeko ezer esaterik., Zur eta lur gelditu nintzen irakurri eta berehala, bertso egitura zuela antzeman nuenean, horrek Leteren abilezia izugarria agerian uzten baitu.

Bertsoetan gertatzen den bezalaxe, olerki honek ere badu amaiera aldean punturik apartekoena, bere amaierako iritzia duen azkenengo puntua (hori izan da, neuretzat behintzat, olerkiko atalik ederrena, beste tankera bateko ametsean murgiltzeko aukera ezinhobea dela uste baitu):

***“Amets betezko loa baitakar
betirako hiltzeak”***

Amaitzeko, esateko daukat edonori gomendatu niokeen olerkia dela, asko ikasteaz gain, ideia ederren islada ezinhobea delako.